LAN HARREMANEN KONTSEILUA
CONSEJO DE RELACIONES LABORALES

JARDUERAREN MEMORIA

2015

AURKIBIDEA

SARRERA

1. BARNE ANTOLAMENDUA ETA OSAERA

2. OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN JARDUERA

3. KONTSULTA JARDUERA

4. LAN HARREMANEN ZERBITZU INTEGRAL BATERANTZ

5. PRECO GATAZKAK EBAZTEKO PROZEDURAK

6. ESTATUTUAREN ARABERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEKO PROZEDURAK EBAZTEKO ORGANOA (ORPRICCE)

7. AZTERLANAK ETA ARGITALPENAK

8. AURREKONTU INFORMAZIOA

SARRERA

Jardueraren memoria, gizarteari gure kontuak aurkezteko dugun tresna nagusia da. Bertan urtean zehar izan dugun jardueraren laburpena ematen dugu. Orain hitzaurrea egiten diodan hau 2015 urteari dagokiona da.

Lan Harremanen Kontseilua, ordezkaritzarik handieneko euskal gizarte-ekintzaileen arteko elkartze eta elkarrizketa etengaberako organoa izateko jaio zen. Funtsezko osagaia da, Euskadin autonomia kolektibotik gobernaturiko geure lan harremanen eredua eraikitzerakoan. Eta eredu hau eraikitzen eta sendotzen eraginkorki laguntzen duen heinean, oraindik ere badu zentzurik. Zeregin honek esangura eta zailtasun bereziak hartu ditu azken urteetan, faktore bi elkartu baitira, hots: orain artean konpondu ezina izan zaigun negoziazio kolektiboen blokeoa eta estatu eremuko negoziazioari lehentasuna ematen dion legegintza-testuingurua (izan ere, batzuetan estatu eremuko hitzarmenek gure negoziazio eremua ordezten edo zuzenean murrizten dute eta beste batzuetan garaiz berritu gabeko gure hitzarmen bat galtzen denean, EAEko langileen parte baten lan-baldintzak estatu eremuko hitzarmenek arautzen dituzte).

Bistan da guztiok ez dugula erantzukizun maila bera gure lan-harremanen ereduak duen ahultze larri horretan. Lan-erreformek, hitzarmenak negoziatzeko benetako zailtasunek, sektoreko araudiak eta enpresen beharrak antolatzeko prozesuen konplexutasunak berak, areagotu egiten dute, besteak beste, geure eredua finkatu eta mantentzeko lanaren zailtasuna; errealitatea, ordea, geure erabakietatik abiatuta eraikitzen da soilik. Eta horretarako ezinbestekoa dugu elkarrizketa berreskuratu eta indartzea, diagnostiko partekatuak izan eta nahi dugun guztien etorkizunaren ildo nagusiak definitzea. Lan Harremanen Kontseiluak, elkarrizketa hori sustatzeko egitura behar luke gaur, inoiz baino areago agian. Jaiotzean zuen espiritua berreskuratu eta leial izan beharko litzaioke.

Bada horretarako tresnarik. Gogorarazi nahi dut berriro ere, lege-markoak, 2012ko erreformakoa baino askotzaz murriztaileagoa bada ere, bidea ematen duela, lanbide arteko eremuan gure hitzarmenak babestuko dituen egitura-akordio bat sinatzeko. Aldi berean, begi bistan dago hitzarmen hauek garaiz berritzeak, jarduera-eremu garrantzitsuak estatu eremuetara ihes egitea galaraziko lukeela. Ekimen bi hauen gehiketak, lehen esan dudanez atzenean gure ereduaren deusezta-pena ekar lezaketen pitzadurak estal litzake.

Zailtasunezko ingurune honetan, aitzitik, Kontseiluak eta bertan lan egiten dugunok, gure lan-harremanen funtzionamendu onari laguntzeko espazioa dagoela uste dugu. Aspaldian ulertu genuen gure zeregina, batez ere, lan harreman kolektiboetarako kalitatezko laguntza-zerbitzu osoa izatea dela, lan honi dimentsio anitzeko ikuspegitik ekin behar dioguna: hitzarmen eta akordioen negoziazioa, akordio hauen edukiak batzorde paritarioen bidez dinamikoki kudeatzea eta akordiook

aplikatzean sortzen diren gatazkak ebaztea. Honezaz gainera, ezaguera sortu beharra dago, gero eta konplexuagoa den errealitate soziolaborala etengabe aztertuz. Jarduera horrek badu edukirik eta zentzurik, lehen aipatu ditudan gaurko arrisku eta eskasien markoan. Hori bai, lan osagarria izan beharko luke, protagonista zuzenen borondate argi eta erabaki sendoetan oinarritutako eredu propioa sostengatu eta aberasten laguntzeko.

Edozertara ere, orain aurkezten dugun memoria honek helburu horiekin dugun konpromisoaren intentsitatea eta kalitatea erakusten ditu.

Alde batetik hitzarmena Kontseiluan negoziatzen duten eta gure zerbitzuak erabiltzen dituzten batzordeak gero eta gehiago dira urte bakoitzean. Gure egoitzetan helbideratu diren batzorde paritarioak ere gero eta gehiago dira. Beste alde batetik, Precoko datuek erakusten dutenez, gure harreman kolektiboekin loturiko gatazka guztiak Precoko prozeduren bidez kudeatzen da eta haren emaitzak, oraindik ere nahi genukeenaren mailan ez badaude ere, %25aren ingurura heldu dira berriz ere, 2013 eta 2014 urteetan izan zen jaitsieraren ondoren (jaitsiera honen arrazoia, oso hein handian, lan-erreformak negoziazio kolektiboaren egonkortasunean izan zuen eragina da).

Edozertara ere, Precori dagokionez, beste hainbat aldiz esan dudana berretsi nahi dut: lan-harreman kolektiboei ikuspegi dinamikoago eta osoago batetik begiratuta, gatazken tipologia berria da eta negoziazioaren, akordioen kudeaketaren eta gatazkaren arteko mugak ez dira lehen bezain argiak. Gainera Preco Lanbide arteko Akordioaren antzinatasuna kontuan harturik (Akordioa 2000 urtean sinatu zen), komenigarria izango litzateke Precoren edukia berrikusi eta eguneratzea. Batzorde Paritarioak zeregin honi ekin zion, baina oraingoz ez du akordio batez burutu.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi, Kontseiluaren jarduera normalizatutzat sendotu diren beste funtzio batzuk, aplikatzeko hitzarmenari buruzko kontsulta edo hitzarmen eta akordioen erregistratzea, adibidez, instrumentalak baitira, baina besteak bezain beharrezkoak eta erabilgarriak. Geuk egindakoen harrokerian jausi barik, berriro aipatu nahi nuke gure azterlan eta txostenek ekartzen duten balio erantsia, gizarte ekintzaileentzat ez ezik, gizarte osoarentzat ere termometro eraginkorra baitira, gure harreman kolektiboen une bakoitzeko egoera neurtzerakoan.

Asmatuz zein akatsak eginez, Kontseilua osatzen dugun pertsona guztiek, gizarteari ematen dizkigun baliabideak errentagarritasunez itzultzeko konpromiso sendoa hartuta lan egiten dugu, gure lanaren zentzu bakarra, justizia eta kohesio handiagoko gizartea sortzen apalkiro laguntzea delako uste osoan.

Tomas Arrieta Heras
Kontseiluko burua

1. BARNE ANTOLAMENDUA ETA OSAERA

Lan Harreman Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoaren organo bat da, eta irailaren 30eko 9/1981 Legearen bitartez sortu zen; nolanahi ere, Lan Harremanen Kontseiluaren egungo erregulazioa ekainaren 23ko 4/2012 Legean jasota dago. Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren gai soziolaboraletarako kontsulta erakundea da, eta, hori ez ezik, sindikatuen eta enpresaburu konfederazioen arteko topaketa eta elkarrizketarako organo iraunkorra ere bada (ikus horri buruzko **INFORMAZIO GEHIAGO** Kontseiluaren webgunearen Nortzuk garen atalean).

Kontseilua alderdi bikoa eta paritarioa da, baina Kontseiluko kideen ezohiko berritze partzial baten ondorioz (ikus **OSAERA** LHKren webgunean), gaur egun, erakunde eta konfederazio sindikalek izendatutako sei kidez eta enpresaburu konfederazioek izendatutako beste zazpi kidez osatuta dago. Lehendakaria eta idazkari nagusia ere Kontseiluko parte dira, baina ez dute botoa emateko eskubiderik.

2015ean Euskadiko Langileen Batasun Orokorra erakunde sindikalak (Euskadiko UGT) izendatutako kide bat ordezkatu da.

KONTSEILUKO LANGILEAK

2015. urtean, Lan Harremanen Kontseiluak honako langile hauek izan zituen: koordinatzaile juridiko bat, azterlan sozioekonomikoen arduradun bat, teknikari jurista bat, administrazioburu bat, informazioaren eta dokumentu eta itzulpenen arduradun bat, negoziazio kolektiboaren arloko teknikari bat, bi administrari, goi karguko idazkari bat eta hiru laguntzaile orokor. Gainera, behin-behineko langile gisa, hiru lurralde arduradunek beren gain hartzen dute Precoren prozeduren kudeaketaren eta hitzarmen kolektiboa bultzatzearen ardura, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

2. OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN JARDUERA

Lan Harremanen Kontseiluaren ohiko funtzionamendua Osoko Bilkuraren eta haren batzordeen bitartez bideratzen da. 2015. urtean honako funtzionamendua izan dute organo horiek:

KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA: Kontseiluak lau Osoko Bilkura arrunt egin zituen 2015ean. Bilkura horietan, Osoko Bilkuraren ohiko lanez gain, honako hauek ere gauzatu dira: Kontseiluaren informazioa abenduaren 9ko 19/2013 Legera (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa) egokitzea, 2014ko urteko txosten soziolaborala onartzea eta Kontseiluaren kideen ezohiko berritze partzialeko prozedura gauzatzea.

PRESTAKETA BATZORDEA: Batzorde hau biltzen da Kontseiluko Osoko Bilkuraren bileren arabera; izan ere, besteak beste, horren gai zerrenda finkatu behar du. 2015ean lau aldiz bildu zen.

TXOSTEN BATZORDEA: Txostenen Batzordeak, besteak beste, Kontseiluaren kontsulta eginkizuna betetzen du. 2015. urtean, Memoria honen “Kontsulta jarduera” atalean jasotzen diren txosten eskaeren inguruan bildu da Batzorde hau.

Aurrez aipatutako batzorde guztiak Kontseiluarenak dira, eta aipatzekoa da, horiek ez ezik, Precoren Batzorde Paritarioa ere Kontseilu horren esparruan biltzen dela; memoria honetako Precori buruzko kapituluan ematen da jardun horren berri.

3. KONTSULTA JARDUERA

Kontseiluak duen kontsulta eginkizuna garatzeko organo delegatua Txostenen Batzordea da; Batzorde horrek berak 2004ko martxoan onartutako erabaki baten arabera garatzen du eginkizun hori.

Batzordeko kide gehienak iritzi berekoak direnean, Kontseiluak irizpen bat ematen du; aldiz, iritzi desberdinak daudenean eta adostasunik lortu ezin denean, Batzordeko kideen iritzi desberdinak zehazten dituen txosten bat egiten da.

2015eko ekitaldian sei txosten eskaera jaso ziren Kontseiluan. Eskaera horietako lautan, Kontseiluak irizpena eman zuen, honako gai hauen inguruan:

–Euskal Enplegu Publikoaren lege aurreproiektua.

–EAEn lan kontratuen edukia eta haien oinarrizko kopiak bitarteko elektronikoen bidez helarazteko prozedura.

–Euskal Autonomia Erkidegoko 2016 laneko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duten bi dekretu proiektuak. Bat 2015eko apirilaren 7an jaso zen eta berria, ekainaren 1ean.

Gainerako bi eskaeren kasuan, hau da, langileek, dagozkien ordainsariak jasota, 2015eko maiatzaren 24ko Batzar Nagusien eta 2015eko abenduaren 20ko Gorte Nagusien hauteskundeetan parte har dezaten arauak ematen dituzten Agindu proiektuen kasuetan, txosten bat egin zen.

(Ikus txostenen testua eta irizpenak LHKren webgunearen **KONTSULTA JARDUERA** atalean).

Gainera, Kontseiluak bere ekimenez, Euskadiko Kooperatiben lege proiektuari buruzko txosten bat eman zuen.

4. LAN HARREMANEN ZERBITZU INTEGRAL BATERANTZ

BATZORDE PARITARIOEI ETA HITZARMEN KOLEKTIBOAK NEGOZIATZEN DITUZTEN BATZORDEEI EMANDAKO ZERBITZUAK

Kontseiluak, lan harremanen zerbitzu integrala izatera iristeko prozesuan, hainbat alderdi biltzen dituen laguntza eskaintzen die hitzarmen sektorialen negoziazio batzordeei eta horietako bakoitzak sortu behar duen batzorde paritarioari, esaterako, bileretarako lokalak erabiltzeko aukera, batzorde paritarioetara zuzentzen diren eskaerak jasotzea eta izapidetzea, batzorde horietan Kontseiluko teknikari baten edo, behin-behinean, Precoren zerrendetako profesional baten presentzia bermatzea, moderatzaile, aholkulari edo akten idazkari izateko, baita aholkularitza ematea ere hitzarmenen negoziazioaren sustapenean, batzordeen eraketa prozesuan, hitzarmen kolektiboen izenpetzean, batzorde paritarioen erabakiak betearazteko garaian eta Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan aurkezterakoan.

Gainera, Kontseiluak Internet bidezko sarbidea duen aplikazio informatiko bat du; aplikazio horren bidez, batzordeetako kideek bakoitzari dagokion negoziazio batzordean edo batzorde paritarioan jasotako eta sortutako dokumentu guztiak eskura ditzakete, baita jardun guztien kudeaketa egoerari buruzko informazioa ere, eta halaber, beren hitzarmen kolektiboaren edozein artikuluren inguruan beren batzorde paritarioan dagoen aurrekariak bilatzea ahalbidetzen dieten bilaketa sistema eskaintzen die.

Laguntza gailu informatiko honen bitartez batzordeek beren eginkizunak modu eraginkorrean betetzea erraztu nahi da. Batzorde paritarioei dagokienez, batzorde horiek eragile sozialen gain eragin duten interes eskasari aurre egin nahi zaio, hitzarmen kolektiboa berritzeko unetik haratago. Lan harremanen sistemak modu eraginkorrean funtzionatzeko negoziazio kolektiboa ez da ikusi behar aldi baterako gertakari gisa baizik eta iraunkor gisa, nahiz eta intentsitate desberdina izango duen hitzarmenaren negoziazioaren unean eta gauzatzealdian; hori dela eta, negoziazio batzordeei eta batzorde paritarioei laguntzeko programa hau Lan Harremanen Kontseiluaren helburu nagusi bihurtu da.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren zerbitzuak sektorearen, probintziaren eta autonomia erkidegoaren eremuko hitzarmen kolektiboen batzordeei eskaintzen zaizkie. Ez da berdin gertatzen enpresa hitzarmenekin; izan ere, haien kopurua handia da eta Kontseiluak baliabide mugatuak ditu, nahiz eta batzuetan, erakundearen bitartekoek ahalbidetzen dutenean, laguntzaren bat eskaintzen zaien negoziazio batzordea osatzeko, negoziazioa amaitzeko eta egindako hitzarmena erregistratzeko garaian.

2015EAN HITZARMEN ETA AKORDIO KOLEKTIBOEN ERREGISTROAN AURKEZTUTAKOAK

EREMU SEKTORIALA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ORGANO NAGUSIA	GUZTIRA
HITZARMEN KOLEKTIBOA	2	3	0	2	7
SOLDATA BERRIKUSTEA	4	8	2	0	14
HITZARMENA ALDATZEA	1	0	0	1	2
BATZORDE PARITARIOAREN AKORDIOA	2	0	0	0	2
NEGOZIAZIOAK ETA SALAKETAN HASTEA	0	8	1	1	10
GUZTIRA	9	19	3	4	35

KONTSEILUAK AZKEN URTEETAN BERE ZERBITZUAK ESKAINTZEN DIZKIEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOZIAZIO BATZORDEEN ETA BATZORDE PARITARIOEN ZERRENDA. ARABA

BATZORDE PARITARIOAK

- Altzarien merkataritza
- Ardoaren industria eta merkataritza
- Ehun gaien merkataritza
- Elikadura merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa zerbitzua
- Eraikuntza eta herri lanak
- Etxeko laguntza zerbitzua
- Etxez etxeko laguntza
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa zerbitzuaren emakidadunak
- Gizarte arloko esku-hartzea
- Gozogintza, pastelgintza eta bonboi eta gozokien industrien merkataritza
- Haurrekin, gazteekin eta familiarekin esku hartzeko eta haiei laguntzeko gizarte zerbitzuak
- Hirugarrenentzako kirol jarduerak
- Industria siderometalurgikoa
- Okindegien industria eta merkataritza
- Salgaien garraioa errepide bidez, eta garraio agentziak
- Zementuaren deribatuak

NEGOZIAZIO BATZORDEAK

- Aisia eta astialdia
- Altzarien merkataritza
- Anbulantzia zerbitzuak
- Ehun gaien merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa zerbitzua
- Eraikuntza eta herri lanak
- Errepide bidezko bidaiarien garraioa
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa zerbitzuaren emakidadunak
- Gizarte arloko esku-hartzea
- Gozogintza, pastelgintza eta bonboi eta gozokien industriak
- Haurrekin, gazteekin eta familiarekin esku hartzeko eta haiei laguntzeko gizarte zerbitzuak
- Hirugarrenentzako kirol jarduerak
- Industria siderometalurgikoa
- Metalaren merkataritza
- Okindegien industria eta merkataritza
- Ostalaritza
- Salgaien garraioa errepide bidez, eta garraio agentziak
- Zuraren industria

KONTSEILUAK AZKEN URTEETAN BERE ZERBITZUAK ESKAINTZEN DIZKIEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOZIAZIO BATZORDEEN ETA BATZORDE PARITARIOEN ZERRENDA. BIZKAIA

BATZORDE PARITARIOAK

- Adinekoen zentroak
- Bulegoak eta despatxuak
- EAEko merkataritza (Esparru Akordioa)
- Ehun gaien merkataritza
- Elikadura merkataritza
- Eraikuntza
- Eskola garraioan eta patioan lagun egiteko zerbitzuaren enpresa esleipendunak (EAE)
- Etxez etxeko laguntza
- Farmazia bulegoak
- Gaixoen eta istripua izandakoen errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzian
- Gasolina zerbitzuguneak
- Gizarte arloko esku hartzea
- Harria eta marmola
- Industria siderometalurgikoa
- Kirolerako lokalak eta zelaiak
- Kolektibitateak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden zuzeneko kudeaketako eskola jantokietan
- Likoreak eta ardoak egitea
- Merkataritza orokorra
- Okindegiak
- Osakidetzako lokalen garbiketaren enpresa esleipendunak (EAE)
- Ostalaritza

NEGOZIAZIO BATZORDEAK

- Adinekoen zentroak
- Altzarien merkataritza
- Arrain kontserbak eta arrain gazituak
- Arte grafikoak
- Bidaiarien errepide bidezko zerbitzu erregularren eta diskrezionalen garraioa
- Bulegoak eta despatxuak
- EAEko gaixoen eta istripua izandakoen errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzian
- EAEko merkataritza (Esparru Akordioa)
- Ehun gaien merkataritza
- Elikadura merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa zerbitzua
- Eraikuntza
- Establezimendu sanitario pribatuak
- Etxez etxeko laguntza
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak diren eskola garraioan eta patioan lagun egiteko zerbitzuaren enpresa esleipendunak (EAE)
- Farmazia bulegoak
- Fruta eta barazkien biltegi jabeak eta bananen biltegi jabeak
- Gaixoen eta istripua izandakoen errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzian (Bizkaia)
- Garbiketa zerbitzuko enpresa emakidadunak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta UPV/EHUren menpekoak diren zentroetan (CAPV)
- Gasolina zerbitzuguneak
- Gizarte arloko esku-hartzea
- Harria eta marmola
- Hormigoiak eta harrobiak
- Industria siderometalurgikoa
- Kirolerako lokalak eta zelaiak
- Kolektibitateak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden zuzeneko kudeaketako eskola jantokietan
- Larruaren eta oinetakoen merkataritza
- Likoreak eta ardoak egitea
- Mercabilbaoko arrain handizkariak
- Merkataritza orokorra
- Metalaren merkataritza
- Osakidetzako lokalen garbiketaren enpresa esleipendunak (EAE)
- Ostalaritza
- Tindategiak eta garbitegiak

KONTSEILUAK AZKEN URTEETAN BERE ZERBITZUAK ESKAINTZEN DIZKIEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOZIAZIO BATZORDEEN ETA BATZORDE PARITARIOEN ZERRENDA. GIPUZKOA

BATZORDE PARITARIOAK

- Adinekoentzako egoitzak
- Altzarien eta altzari lagungarrien industria
- Altzarien merkataritza
- Arte grafikoak
- Beira industria
- Bideen garbiketa
- Bingo aretoak
- Bulegoak eta despatxuak
- Edari freskagarrien industria
- Ehun gaien merkataritza
- Eraikuntza eta herri lanak
- Gaixoen eta istripua izandakoen anbulantzia bidezko garraioa
- Gasolina zerbitzuguneak
- Gizarte arloko esku-hartzea
- Herrizaingo Sailaren zentroen garbiketa zerbitzuaren enpresa emakidadunak
- Hortz protesia
- Industria siderometalurgikoa
- Irungo Udalaren zentroen garbiketa zerbitzuaren enpresa emakidadunak
- Janarien industria eta merkataritza
- Larrukien merkataritza
- Lokalak eta ikuskizunak
- Mahatsaren industria eta merkataritza
- Merkataritza oro har
- Metalaren merkataritza
- Okintza
- Ore, paper eta kartoien fabrikazioa
- Ostatuak
- Titulartasun publikoko kirol instalazioak
- Zeramika industria
- Zuraren industria

NEGOZIAZIO BATZORDEAK

- Adinekoentzako egoitzak
- Altzarien eta altzari lagungarrien industria
- Altzarien merkataritza
- Arte grafikoak
- Beira industria
- Bideen garbiketa
- Bingo aretoak
- Bulegoak eta despatxuak
- Edari freskagarrien industria
- Ehun gaien merkataritza
- Eraikuntza eta herri lanak
- Errepide bidezko bidaiarien garraioa
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa zerbitzuaren enpresa emakidadunak
- Gizarte arloko esku-hartzea
- Gozogintza eta gozokien merkataritza
- Herrizaingo Sailaren zentroen garbiketa zerbitzuaren enpresa emakidadunak
- Hortz protesia
- Industria siderometalurgikoa
- Irungo Udalaren zentroen garbiketa zerbitzuaren enpresa emakidadunak
- Janarien industria eta merkataritza
- Larrukien merkataritza
- Lokalak eta ikuskizunak
- Mahatsaren industria eta merkataritza
- Merkataritza oro har
- Metalaren merkataritza
- Salgaien errepide bidezko garraioa
- Titulartasun publikoko kirol instalazioak
- Okintza
- Ore, paper eta kartoien fabrikazioa
- Ostalaritza
- Ostatuak
- Zeramika industria
- Zuraren industria

APLIKATZEKOA DEN HITZARMENARI BURUZKO KONTSULTAK

2009. urtearen erdialdean, Kontseiluaren web orriaren barnean, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa bakoitzean, edo hala badagokio, lantoki bakoitzean, aplika litekeen hitzarmenari buruzko kontsulta zerbitzu berria sartu da. Informazio hori ez da loteslea, hau da, ez da legezkoa, eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa zehazteko laguntza teknikoa ematea du helburu bakartzat.

Kontsulta egiteko, inprimaki erraz bat bete behar da, besterik ez. 2015. urtean hainbat kontsultari eman diegu erantzuna (135), eta kontsulta kopurua gero eta handiagoa da gainera, jendeak zerbitzu hori indarrean dagoela jakin ahala; horixe ikusten da erantsitako grafikoan.



5. PRECO GATAZKAK EBAZTEKO PROZEDURAK

2015. urtean, Lan Harremanen Kontseiluak aurrera jarraitu du Preco Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa bere hiru lurralde zerbitzuen bitartez kudeatzeko lanean. 2000ko otsailaren 16an (66. zenbakiko EHAA, 2000ko apirilaren 4koa), Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkaritzarik handieneko sindikatu eta enpresaburu konfederazio guztiek sinatu zuten akordio hori.

Ondoren, alde batetik 2015. urtean eskatu diren prozedurei buruzko informazioa jasotzen da, Precoren bitartez bideratutako lan gatazken kopuruaren bilakaeraren ikuspegia eskaintzen duena, eta bestetik, urte horretan bertan amaitutako prozedurei buruzkoa, haien kudeaketa eta emaitzak aztertzeko.

AURKEZTUTAKO ESKAERAK

Grafikoak adierazten duenez, 2015ean, gatazka kolektiboko prozedura eskaeren kopurua 2013an, urte horretako ezohiko inguruabarrak zirela eta desorekatu zen normaltasuna berreskuratzeko bidean da. Enpresek beren langileei hitzarmen kolektiboen aurreraginaren inguruan (lege aldaketak uztailean izan zuen eragina) egindako komunikazioen aurkaratze kolektiboek eta sektore publikoan 2012ko abenduko aparteko paga kentzeagatiko erreklamazio ugariek eragin zuten eskabide kopuruak gora egitea.

Krisi urteen ondorioz, gatazka kolektiboko prozedurak modu esanguratsuan areagotu ziren, 300 inguru izatetik 400 inguru izatera iritsi baitziren. Lan erreformen urteetan 500etik gora izan ziren, 2013ko goraldira arte, eta 2014an eta 2015ean maila horretara itzuli dira. Azken urte honetan 573 prozedura izan dira, eta esan daiteke kopuru hori eta 2013ko eta 2014ko kopuruak izan direla Precoren historiaren garrantzitsuenak, nahiz eta aurreko bi urteen ikuspegiarekin, kota normalagoak berreskuratu diren.



Gatazken eremuari dagokionez, enpresa eremukoak izan dira gehienak, ohikoa den moduan.
573 eskaeretatik 8k soilik hartu dute eraginpean produkzio sektore oso bat. Gainerako 565 eskaerak enpresa gatazken ingurukoak izan dira,
60 sektore publikoko enpresa eta erakundeetan (%10,6), eta 505 sektore pribatuan (%89,4).

PROZEDURA ESKAEREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
EAE	PROZEDURA KOPURUA	406	361	454	530	420	1.349	581	573
	ERAGINPEKO LANGILEAK	79.792	141.313	128.464	109.632	72.033	454.179	160.280	186.645
ARABA	PROZEDURA KOPURUA	111	71	101	126	96	203	148	94
	ERAGINPEKO LANGILEAK	35.484	64.749	52.787	35.605	20.760	95.509	59.971	34.688
BIZKAIA	PROZEDURA KOPURUA	213	202	237	302	220	739	289	326
	ERAGINPEKO LANGILEAK	33.630	67.675	65.326	59.386	41.477	214.213	85.874	138.650
GIPUZKOA	PROZEDURA KOPURUA	82	88	116	102	104	407	144	153
	ERAGINPEKO LANGILEAK	10.678	8.889	10.351	14.641	9.796	144.457	14.435	13.307

Ekonomia sektoreei dagokienez, zerbitzu sektoreko gatazkak industria sektoreko gatazkak ordezkatzen ari dira; 2006tik gaur egun arte modu jarraian gertatu da ordezkatze prozesu hori, baina 2015. urtean iritsi da maila gorenera. Euskadiren industria tradizio handiak eragin izan du jardun sindikalak eta sektore horri zegozkion gatazka prozeduren formalizazioak garrantzi handia izatea, batez ere siderometalurgiaren arloan, gainerakoekiko nabarmen nagusituz. 2006. urtearen aurreko serie historikoan, industria sektoreko gatazkak guztizkoaren %55 inguru ziren, eta zerbitzu sektorekoak %43 inguru. Urte horretan hasi zen industria gatazken pixkanakako jaitsiera, eta zerbitzu sektoreko gatazken igoera geldiezina; 2014an oszilazio txiki bat izan zen, baina 2015ean izugarrizko igoera gertatu da, zerbitzu gatazkak guztizkoaren %65,3 izanik eta industriakoak, aldiz, %30,9.

Prebalentzia horretan zerbitzu publikoak nagusitzen dira, esamoldearen zentzu zabalean, esaterako, garraio publikoa eskaintzen duten enpresak, gizarte zerbitzuak (hirugarren adinekoen egoitzak) edo instalazio publikoen mantentze lanak (garbiketa) egiten dituztenak edo hiri zerbitzuak ematen dituztenak (hondakin bilketa). 2015ean gertatutako gatazka igoera batez ere garraioaren eta hirugarren adinekoen egoitzen azpisektoreei dagokie, oporren ordainsarian bildu beharreko kontzeptuen inguruko doktrina judizial berria dela eta.

Gatazka motari dagokionez, 2015ean enpresaren erabakiari edo praktikari dagozkien gatazken prebalentziari eutsi zaio; horien bidez, enpresak hartutako neurriak aurkaratzen dira, askotan, lan baldintzen aldaketa handiak ekartzen dituzten neurriak hartu aurretik enpresan egin beharreko negoziazioaren porrota gertatu delako edo negoziaziorik egin ez delako. Gatazka horien kopuru gorena 2013an izan zen, alde batetik, hitzarmen kolektiboen baldintzak bizirautearen inguruko enpresa erabakiekin lotutako, eta bestetik, gastu publikoa eusteko neurri gisa erakunde eta enpresa publikoetan 2012ko Gabonetako paga kentzearekin lotutako eskaera kopuru izugarriagatik. Behin behineko igoera hori gainditu ondoren, 2014an eta 2015ean, mota horretako gatazken ehunekoak behera egin du, baina hala ere, azken urtean oraindik guztizkoaren %54,8 da (314 eskaera).

Lege arauen eta hitzarmen kolektiboen interpretazioari edo aplikazioari dagozkien gatazkak %37,7 izan dira (216 eskaera); horien artean, oporrak ordaintzeko moduari dagozkionak nagusitu dira. Halaber, nabarmena izan da sindikatu batek enpresa batean duen afiliazio ehunekoa egiaztatzeko eskaeren igoera, 2014an arlo horretan izapidetutako eskaera kopurua bikoiztu egin baita 2015ean (2014. urtean, 10 eta 2015. urtean, 19).



PROZEDUREN KUDEAKETA

PROZEDURAK, AMAITZEN DIREN FASEAREN EDO UNEAREN ARABERA

Precoren prozeduretan bi fase bereizten dira; hasierako fasea deitutakoan, prozeduren lurraldeko arduradunak adiskidetzea helburu duen topaketa bat antolatzen du, eta bigarrenean, bi alderdiek ados jarrita aukeratutako kanpo profesional baten laguntzarekin prozedura (adiskidetzea, bitartekotza edo arbitrajea) gauzatzen da. Lehen fasean adostasunik lortzen ez denean ekiten zaio bigarren faseari, eta normalean, gatazkaren alderdi bakoitzaren gehiengoak nahi duen guztietan; bigarren fasea formatu zabalekoa izaten da, luzea eta saio askorekin.

2000. urtetik, Preco da urriaren 10eko 36/2011 Legeak –gizarte jurisdikzioa erregulatzen duenak– eskatzen duen adiskidetze izapidea agortzeko bide bakarra, gatazka kolektiboko demanda judizial bat planteatu aurretik. Hori dela eta, Precon aurkeztutako eskaera asko hasierako fasean amaitzen dira, eskakizun prozesala agortzeko aurkezten direlako, eta ez gatazka modu negoziatuan amaitzeko asmoarekin. Beraz, hori oso datu adierazgarria da, eta horren bilakaerak honako grafiko hau erakusten du:



Ikus daitekeenez, bi alderdiek berezko adiskidetze prozedura bat (bitartekotza edo arbitrajea), behar adina saioekin eta inplikazio mailarekin gauzatzea onartzen duten kasuen ehunekoa oso txikia da. Esan den moduan, horren arrazoia zera da, bide judizialera jo ahal izateko, gure prozeduren hasierako fasea gauzatzea ezinbestekoa dela, nahiz eta horrek ez dakarren bi alderdiek gatazkaren konponbide negoziatuan inplikatzeko prest daudenik. Horri gaineratu behar zaizkio, EAEko lan harremanetan aspalditik dagoen antagonismo bereziaren berezko zailtasunak, baita defizit publikoari eusteko neurriak indarrean jartzeak eta 2012ko lan erreformak eragindakoak ere.

Grafikoan ikus daitezke neurriak indarrean jartzearen aurreko eta ondorengo egoerak. 2012ko banaketa aurreko urteetan Precon erregistratu denaren antzekoa da (hainbat gorabeherarekin). 2013an erabateko aldaketa gertatu zen, hitzarmen kolektiboen aurreraginaren amaierak eragindako gatazkengatiko eskaera kopuru handiagatik; izan ere, alderdiak ez zeuden irtenbide adostuak bilatzeko prest arlo horretan zegoen ziurgabetasun juridikoaren aurrean. Beraz, horrelako ia eskaera gehienek hasierako fasea agortu ondoren, bide judizialera jo zuten, adiskidetze kasuak izanik, aurretiazko baldintza betetzen zela onartzen zelako.

2013. urtetik aurrera, profesional baten esku-hartzearekin gauzatutako prozeduren ehunekoa aurretik zegoenera pixka bat hurbildu da, baina oraindik ez da normaltasunera iritsi. Oraindik badaude sektore publikoan defizitaren aurka ezarritako neurriekin lotutako eskaerak, nahiz eta gutxitu diren; horietan, eragindako alderdien jarduna eztabaida arlo judizialaren esku uztea izaten da. Halaber, beste mota bateko eskaerak gaineratu dira, esaterako oporrak modu egokian ordaintzeko moduari lotutakoak (101 gatazka); kasu horretan, eskaera horiek egitea eragin duten irizpide judizial berriak ez dira behin betikoak, kasazioan aurkaratu direlako, beraz, eskaera guztiak hasierako fasean itxi dira, eta ia denak adostasunik lortu gabe.

PROZEDUREN EMAITZA. TERMINO OROKORRETAN

Gatazkak konpontzeari dagokionez ere, 2014an hasitako normaltasuna berreskuratzeko prozesua 2015ean sendotu da. Lan erreformak eragin zuen 2013an eskaera kopuru izugarria aurkeztea eta espero zen moduan, horrek gatazka konponbideen ehunekoa asko jaistea (%10,3); 2014an %19,9 izan zen, eta 2015ean, %23,1.

Gatazka konponbideen maila honek ez ditu prozedura sistemaren itxaropenak betetzen; izan ere, krisiaren aurreko urteetan konpondutako gatazken ehunekoa %32tik gorakoa izan zen, baina 2013. urtearen aurreko krisi urteetako batez bestekora (%26) hurbiltzen da.

PROZEDUREN EMAITZA OROKORRAK

AMAITUAK 2012 405

117 EBATZIAK % 19,9

288 EBATZI GABEAK % 80,1

AMAITUAK 2013 1.266

131 EBATZIAK % 10,4

1.135 EBATZI GABEAK % 89,6

AMAITUAK 2014 598

119 EBATZIAK % 19,9

479 EBATZI GABEAK % 80,1

AMAITUAK 2015 541

125 EBATZIAK % 23,1

416 EBATZI GABEAK % 76,9

LEHEN FASEAN AMAITUTAKO PROZEDURAK

Eskaera guztiak (adiskidetzeak, bitartekotzak eta arbitrajeak) igarotzen dira fase honetatik, salbu eta bi alderdiek adostuta zuzenean profesional batek lagundutako prozedura bat irekitzeko interesa agertu dutenean. Alderdiek aukeratutako profesionalak gauzatuko duen adiskidetzera, bitartekotzara edo arbitrajera igarotzeko fasea da. Fase hori azken fase bihurtzen da bi alderdietako batek ez badu onartzen profesional batek esku hartzen duen prozedura bat hastea. Kasu horretan, jarduna adostasunarekin amaitu daiteke, prozeduren lurralde arduradunak (Lan Harremanen Kontseiluko langilea) jardunean alderdien adiskidetzearen bitartez horrela lortzen badu, edo bestela, adostasunik gabe, ez badu lortzen.

Hurrengo grafikoan profesional batek lagundutako adiskidetzerik, bitartekotzarik edo arbitrajerik gabe fase honetan amaitu diren 2015. urteko eskaeren datuak adierazten dira:



Hasierako fasean lortutako adostasun tasa %19,2 izan da 2015ean. Ehuneko hori balioesteko, gogoratu behar da gatazka horietan Kontseiluko kideek adiskidetzeko jardun dutela, alderdiek ez zutelako kanpo profesional batek esku hartuz formatu zabaleko prozedura bat hasteko interesik. Beraz, oso emaitza esanguratsua da; izan ere, aurretik adierazi diren arrazoiak direla-eta 2013an izandako beherakadaren aurreko maila berreskuratu da.

PROFESIONALDUN PROZEDURAK

Alderdiek adostuta aukeratutako profesionalaren esku-hartzearekin 2015ean amaitutako prozedurak, hau da, adiskidetzeak, bitartekotzak edo arbitrajeak, 51 izan dira: 37 adiskidetze, 11 bitartekotza eta 3 arbitraje. Ikus ditzagun prozedura mota bakoitzari dagozkion datuak.

ADISKIDETZEAK

Adiskidetzea Precok erabilitako prozeduretako bat da; prozedura horretan, profesional batek alderdiei beren gatazkari irtenbide zuzen bat lortzen laguntzen die adostasun baten bidez. 2015. urtean, 37 izan dira. Hurrengo grafikoan azken urteetan izan diren amaiera moduak erakusten dira, bilakaera hobeto ikus dadin. Profesional baten bidezko adiskidetzearen eraginkortasuna oso handia izan da urte horretan ere, serie historiko osoan bezala; izan ere, 26 adostasun lortu dira, hots, 2015ean amaitutako adiskidetze guztien %70,3, aldiz, 2014an, %53,7.



BITARTEKOTZAK

Bitartekotza Precoren beste prozedura bat da; prozedura horretan, profesionalak alderdien arteko akordio zuzenik lortu ez duenean, bi alderdiek onar edo bazter dezaketen proposamen idatzi bat formulatuz amaitzen du bere jarduna. 2015ean 11 bitartekotza izan dira, adiskidetze kopurua baino askoz txikiagoa, eta amaitzeko moduari dagokionez ere, adiskidetzeek izan dute eraginkortasun maila baino baxuagoa izan dute: 4 kasu proposamena onartuz amaitu dira, beste 5 onartu gabe, eta beste 2 kasutan, atzera egitea gertatu da. Beheko grafikoan ikus daitekeenez, datu hau bitartekotza bidez konpondutako gatazken serie historikotik urrun geratzen da.

ARBITRAJEAK

Arbitrajean azkenik, aldez aurretik profesionalak ematen duen laudoa onartzeko konpromisoa hartzen dute alderdiek. Beraz, prozedura hauetan ezin da adostasun ezarik gertatu. 2015ean, 2014an hasitako joera berretsi da; izan ere, arbitroaren esku-hartzea zuten 3 prozedura soilik hasi ziren, honela amaituz: arbitroak batean lortu du adostasuna eta beste bi kasuetan, atzera egitea gertatu da. Alde esanguratsua dago datu hauen eta 2008tik aurrera izan diren arbitrajeen urteko batez bestekoaren (9 arbitraje) artean.

Ondorengo grafikoan ikus daiteke prozedura mota hauek 2009tik aurrera izan duten bilakaera.



2015EKO KUDEAKETAREN LABURPENA

2015. urtean, 541 prozedura amaitu ziren (horietako batzuk 2014n eskatu ziren). Horietatik, 125 kasutan (%23,1) gatazka ebatzi egin zen.

Bestalde, alderdiek profesional bat izendatuta adiskidetzea edo bitartekotza baliatzea erabaki duten prozeduretan, kasuen %62,5 gatazka ebatzita amaitu dira, beraz, emaitza horrek egiaztatzen du bide horiek eraginkorrak direla bi alderdiek gatazka prozedura agortuz ebazteko interesa azaltzen dutenean.

PRECOREN BATZORDE PARITARIOAREN JARDUERA 2015EAN

Precoren Batzorde Paritarioa Preco Lanbide arteko Akordioak sortu zuen, akordioa interpretatu eta aplikatzeko, eta aplikazio arauak lantzeko; 2015eko uztailaren 13an bildu zen Kontseiluaren zuzendaritzarekin eta prozeduren talde kudeatzailearekin, bere bilakaera eta emaitzak aztertzeko. Bilera horretan, besteak beste, honako gai hau aztertu zen: Kontseiluaren presidentziatik egindako proposamena, adiskidetzeak, bitartekotzak eta arbitrajeak gauzatzen dituzten kanpo profesionalen zerrenda eguneratzeari buruzkoa, hain zuzen ere, azken urteetan izandako bajak ordezteko, espezialitate osagarrietako profesionalak sartuz osatzeko, halakorik eskatzen duten gatazkak diziplinartekotasunez jorra daitezen, eta Precoko profesionalen belaunaldi errelebo saihestezina prestatzeko, profesional batzuk 1990ean Preco-II hasi zenetik baitaude.

Profesionalen elkargoak eguneratzeko beharra onartu zenez, bigarren seihilekoan hori gauzatzeko lana hasi da; egindako lanaren ondorioz, 2016ko lehen egunetan, zehazki, urtarrilaren 8an, Batzorde Paritarioak aho batez onartu zituen lurralde egoitza bakoitzeko zerrenda berriak, Lanbide arteko Akordioa sinatu duten lau sindikatu konfederazioen eta enpresaburu konfederazioaren babesarekin. Zerrendak honela osatu dira: Bizkaian, hamabi bitartekari eta lau arbitro, Araban, zazpi bitartekari eta bi arbitro eta Gipuzkoan, hamabi bitartekari eta hiru arbitro.

6. ESTATUTUAREN ARABERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEKO PROZEDURAK EBAZTEKO ORGANOA (ORPRICCE)

Abenduaren 30eko 471/2013 Dekretuaren bidez sortu zen gure Autonomia Erkidegoan hitzarmen kolektiboak ez aplikatzeari buruzko desadostasunak ebazteko eskumena –Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan ezarritakoa– EAEn gauzatzen duen erakunde publikoa. Estatuan, eskumen hori Hitzarmen Kolektiboen Aholku Batzorde Nazionalari dagokio.

ORPRICCEk hiruko izaera du, eta honako hauek osatzen dute: Autonomia Erkidegoko Administrazioko bost ordezkarik, Confebaskeko (enpresaburu konfederazio adierazgarriena) bost ordezkarik eta sindikatu konfederazio adierazgarrienetariko beste bost ordezkarik (nahiz eta bost postu horietako bat hutsik geratu den, LAB erakundeak bere titularra proposatzeko eskubideari uko egin diolako).

Organo hau eratu zuen dekretuak Lan Harremanen Kontseiluan ezarri zion egoitza, haren eskumenak gauzatzeko behar dituen baliabideak Kontseiluak ematea xedatuz. Hori dela eta ematen dugu haren sorreraren eta jardueraren berri, nahiz eta formalki ez den Lan Harremanen Kontseiluari dagokion jarduera.

Organo honen jarduna haren kideek 2014ko martxoaren 13an egindako eraketa bilkuran kargua hartu zutenean hasi zen. 2015ean hitzarmen kolektiboa ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ebazteko bi eskaera aurkeztu ziren. Bi prozeduretan, Lan Harremanen Kontseiluak ORPRICCEri eginkizun horretarako eskainitako zerrendako profesional batek egindako arbitrajeak egin ziren, erakundeak berak ez zuelako desadostasuna ebatzi, bere eraketa arauak ahalbidetzen dion moduan.

7. AZTERLANAK ETA ARGITALPENAK

Lan Harremanen Kontseiluak, bere lege erregulatzailean xedatutakoari jarraiki, irizpenak, ebazpenak, txostenak edo azterlanak lantzen ditu, nola eskumeneko instantzien eskaerei jarraiki hala bere ekimenez.

INFORMAZIO SOZIOLABORALEKO PLANA

Errealitate soziolaborala aztertzeko garatzen dugun lanaren funtsezko ardatza negoziazio kolektiboa da. Aitzitik, negoziazio kolektiboari buruzko informazio hori, errealitate sozioekonomikoaren testuinguru orokorrenean jarri eta horren aldagairik garrantzitsuenetako batzuekin lotzean, aberatsagoa dela uste dugu. Beraz, maiztasun desberdineko txostenak egiten ditugu errealitate hori aztertzeko. Txosten guztiak eskuragarri daude gure webgunean, **INFORMAZIO SOZIOLABORALA** epigrafean.

HILEKO INFORMAZIO SOZIOLABORALA

Hala, EAEko errealitate soziolaboralaren azterketaren lehen maila *Hileko informazio soziolaborala* izeneko argitalpenean jasotzen da, eta argitalpen horretan hitzarmen kolektiboen berriztapenaren jarraipena egiten da eta negoziazio horrek urtean zehar eskaintzen dituen emaitza nagusien informazio metatua ematen da, betiere harira datozen beste informazio soziolaboral batzuen testuinguruan eman ere. Txosten horretan hasierako laburpen koadro bat biltzen da, baita honako alderdi hauei buruzko datuak jasotzen dituzten koadro eta grafiko jakin batzuk ere: egoera makroekonomikoa, industria jarduera, prezioak, lan merkatua, negoziazio kolektiboa, lan gatazkak, enplegua erregulatzeko espedienteak, eta lan istripuak. Guztira, hileroko maiztasuna duten hamaika txosten egiten dira, hilabete natural bakoitzean, abuztuan izan ezik.

HIRUHILEKOKO TXOSTENA: EKONOMIA ETA LAN ARLOAREN BILAKAERA EAEN

2006. urtean hiruhileko maiztasuna zuten lau txosten argitaratzen hasi ginen. Ondoren, 2013ko lehen hiruhilekoan, gogoeta prozesu baten ondoren, edukiari nahiz formatuari eragiten zioten aldaketak txertatu ziren. Grafiko gehiago eta denbora tarte luzeagokoak biltzen zituen txosten baten alde egin zen, hiruhileko bakoitzeko emaitzak haien bilakaeraren arabera zegokien testuinguruan kokatzeko, hain zuzen ere.

2015ean formatuari dagozkion aldaketak egiten jarraitu dugu; grafiko handiagoak txertatu dira (aurreko txostenaren 6 orrialdeko tamaina finkoan sartu ezin zirenak) eta izena aldatu da, oraingoa hau izanik: "Euskadiko egoera soziolaborala".

Negoziazio kolektiboari, enpleguari eta kontratazioari buruzko atal finkoez gain, lehen hiru hiruhilekoetako txostenetan, hainbat gai interesgarriren inguruko azterketa egin da. Lehen hiruhilekoan, lan erreformak EAEko negoziazio kolektiboan izan dituen eraginak aztertu ziren, bigarrenean, kontratazioaren eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrarekiko afiliazioaren azkenaldiko bilakaera aztertu zen, kontratu eta lanaldi motarekin lotutako alderdietan arreta jarriz, eta hirugarrenean, Euskadiko lan kostuen bilakaera.

Laugarren hiruhileko txostena Euskadiko Negoziazio Kolektiboaren Balantzea argitaratzeko datekin gainjartzen zenez, egokia ikusi zen bi txostenak integratzea, eta gainera, edukiaren zati bat berdina zuten. Laugarren hiruhileko txostenari izenburu hau jarri zitzaion: "Euskadiko egoera soziolaborala, emaitzen aurrerapena". Txosten horrek urtean zehar gertatutakoaren ikuspegi orokorra eta urte berriko negoziazio kolektiboaren hasierako egoeraren azterketa eskaintzen ditu.

Argitaratzeko datari dagokionez, Euskal Estatistika Erakundeak EAEko Barne Produktu Gordinaren (BPGa) hiruhilekoko datuen argitalpena egin eta ondorengo egunetan argitaratzen jarraitu da.

URTEKO TXOSTEN SOZIOLABORALA

Jarraipen soziolaboralerako plan hori urteko txosten soziolaboralak burutzen du. Bertan ekitaldi osoaren analisi osatuagoa egiten da, gogoeta kualitatibo xehatuagoa eskainiz. 2015. urtean, 2014. Urteari dagokion txostena argitaratu du Kontseiluak, honako izenburu honekin: EAEko egoera ekonomikoa eta lan harremanak 2014an.

Errealitate soziolaboralaren azterketa eta jarraipen lan hori guztia egiteko, Kontseiluak datu base sozioekonomiko bat egin du, estatistika informazio garrantzitsu desberdinak baliatuz eta aldagaiak eta adierazleak zehatz-mehatz aukeratuz. Gainera, bere datu basea lantzen eta prozesatu du, EAEko negoziazio kolektiboari buruz eskuragarri dagoen informazio guztia bilduz, beste eremu batzuetan garatu arren, gure autonomia erkidegoan eragina duen informazioa ere aintzat hartuta. 2015ean bi datu baseak elikatu dira, 2013an martxan jarritako eta informazioa kudeatzeko ahalmen handiagoa duen beste aplikazio informatiko berri batean.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA EAEN

Bi urtero, Kontseiluak negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazioa eguneratzen du orokorrean. Lan hori, azken batean, EAEn aplikatzen diren hitzarmen kolektiboak eta horien eraginpeko pertsonak zehaztean datza (azken eguneratze lana 2014an egin zen), horretarako oinarri gisa martxoaren 31ko Gizarte Segurantzak emandako informazioa hartuta.

EAEko negoziazio kolektiboaren egituraren eguneratze mapa egitea funtsezkoa da Lan Harremanen Kontseiluak egiten duen negoziazio kolektiboaren jarraipen eginkizunerako.

2015. urtean, azkenean erabaki zen negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko txosten espezifikoa ez argitaratzea; izan ere, ez zen justifikatua ikusi 2015eko lehen hiruhilekoan 2014ko martxoaren 31ko datuetan oinarritutako txosten bat argitaratzeko ahalegina; izan ere, Lan Harremanen Kontseiluak data horren ondoren eta datu eguneratuagoekin hainbat hileko txosten eta hiruhileko txosten bat jadanik argitaratuak zituen.

Nolanahi ere, egitura berriari buruzko informazioa erantsi zen 2014ko urteko txostenean, baita urte bereko laugarren hiruhileko txostenean ere.

8. AURREKONTU INFORMAZIOA

Lan Harremanen Kontseiluak autonomia ekonomiko finantzarioa du Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen barruan, eta, funtsean, aurrekontu horien kargura emandako diru laguntzen bitartez finantzatzen du bere jarduera.

2014ko azaroaren 4an, Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkurak Kontseiluaren 2015eko ekitaldirako aurrekontua onartu zuen.

1. DIRU SARREREN AURREKONTUA

IV. KAPITULUA	
Transferentzia arruntak	2.339.255 €
V. KAPITULUA	
Ondare sarrerak	1.000 €
VII. KAPITULUA	
Kapital transferentziak	27.290 €
VIII. KAPITULUA	
Finantza aktiboen aldaketa	1.112.628 €
GUZTIZKOA	3.480.173 €

2. GASTUEN AURREKONTUA

I. KAPITULUA	
Langile gastuak	1.064.358 €
II. KAPITULUA	
Funtzionamendu gastuak	1.575.471 €
VI. KAPITULUA	
Benetako inbertsioak	360.000 €
VIII. KAPITULUA	
Finantza aktiboen aldaketa	6.000 €
Ezohiko gastu geroratua	474.344 €
GUZTIZKOA	3.480.173 €

3. 2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA*

DIRU-SARRERA ARRUNTAK		2.339.481€
Transferentzia arruntak	2.339.255 €	
Beste diru-sarrera batzuk	226 €	
GASTU ARRUNTAK		2.346.516 €
Langile gastuak	1.003.780 €	
Funtzionamendu gastuak	1.342.736 €	
DEFIZIT GORDINA		(7.035 €)
KAPITALAREN DIRU-SARRERAK		
Kapital transferentziak		27.290 €
KAPITAL GASTUAK		
Benetako inbertsioak		343.560 €
FINANTZAKETA AHALMENA (PREMIA)		(323.305 €)
FINANTZA ERAGIKETAK (DIRU-SARRERAK)		
Finantza aktiboen aldaketa		750 €
FINANTZA ERAGIKETAK (GASTUAK)		
Finantza aktiboen aldaketa		(6.000 €)
AURREKONTUAREN DEFIZITA		(328.555 €)

(*) Memoria zer egunetan idatzi den aintzat hartuta, likidazioa behin-behinekoa da.

LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES